

Gure parte-hartze plataforma hiritarretan (birtual eta presentziazkoa) emandako eztabaida eta konklusioak bat datoz osoki European Environmental Bureau-k (Ingurumeneko Bulego Europarra) esandakoarekin. Azken honek haustura hidraulikoa (frackinga) arbuiatu egiten du eta herri europarrak gonbidatzen ditu frackinga debeka dezatela dakartzan arrisku handiak eta hauek kontrolatzeko ezintasuna kontuan hartuta. Ikune parte-hartze Ekimen Hiritarra, Sagarrak Ekologistak-Martxan eta Anti-Fracking Bizkaia Plataformak, batera aurkezten dute, egoki estimatzen bada, bere eztabaidarako eta onespenerako ondorengo

M O Z I O A

H A S I E R A K O P R O P O S A M E N A

Hausnar dadila hirigintzaren gaineko araudi orokorrean edo Aurrekontuaren Betearazpeneko Arauan (egokiago iritziz gero) aldaketa bat sartzea, hitzez hitz honako hau adieraziko duena: "Etxebarri Udalerrian ez dago baimenduta haustura hidraulikoa erabiltzea gas ez-konbentzionala eskuratzeko, fracking teknikaren bitarteko prospekzioak edo ustiapenak efektu negatiboak izan ditzakeenean egin nahi den tokiko ezaugarri geologiko, ingurunekeo, paisajistiko edo sozioekonomikoen gainean."

A U R R E K A R I A K

Fracking edo haustura hidraulikoa 2.000 metro baino gehiagoko sakontasunetarako zorupeko haitz hausturan datza; horretarako zorua zulatu eta altzairu-tutuetan zehar zuloan sartutako lehergai-karga txikiak lehertzen dira lurzoru harritsuak eragiteko, ondoren hondar-nahastearekiko uraren % 98a eta produktu kimikoen % 2a dituen zulaketako isurki bat presioz sartzen da. Zementu-estaldura bat injektatzen da ere, tutuetako sail desberdinak zigilatuta gera daitezen.

Zigilatzeak bere betebeharra bete dezan berme gutxiago dauka sakontasuna gero eta handiago bada eta akuiferoak kutsa daitezen posibilitatea dago tutuetatik pasatzen diren fluidoekin.

Bestalde, sartutako fluidoaren portzetaia bat (% 80raino) azalera itzultzen da, hondar horien kudeaketaren ondoriozko arazoarekin. Europako Parlamentuko txosten batek uko egiten dio ikerkuntza-teknika bezala, haustura hidraulikoko eta gas-erazketako erabilerari.

Aipaturiko txostenean esandako teknikak eragin ditzakeen kalte posibleak agertzen dira: atmosferara gai kutsakorren isuriketa, fluidoetako edo ihesek eragindako edo isuritako gasetako emariengatik lurpeko uren poluzioa, hausturetako likidoen ihesak eta deskarga ez kontrolatuak, edota gas naturala askatzeko 600 produktu kimiko baino gehiagoren erabilera.

Haustura hidraulikoak eragiten dituen ondorioak direla eta, Frantzia, Holanda, Bulgaria eta Kanadak debekatu dute bere lurralde osoan.

Kantabriako, Errioxako, Leon Gaztelako, Katalunia eta Euskadiko Udal askok, ikerkuntza-baimenek eraginda edo ez, frackingaren aurka agertu dira, halako baimenen etenaldia nor bere gobernu autonomikoei eskatuz.

Labur esanda, gaur egungo baldintzetan, teknika hori praktikan ezarri den eremuetan, eztabaida handia sortu da, ingurunearen degradazioa, edateko uraren kutsadura, agerpen sismikoak eta flora, fauna eta pertsonen bizitzan sortzen dituen arazoak direla eta.

Ondorio hauek Antonio Llardén berak, Enagaseko lehendakariak, aitortzen ditu eta hau uste du: "eskisto-gasaren erauzketa 'frackingaren' bitartez intrusiboa da, zulaketako dorreak eta edukiera handiko kamioi trafikoa behar ditu, ur ugari behar du, eta sismikotasunaren eta akuifero-poluzioaren arriskuak ditu, zeren eta gasa daukaten haitzak produktu kimikoekin nahasitako presio handiko ur-injekzioen bitartez apurtzen dira".

Ez dugu ahaztu behar erregai fosiletatik datorren energiaren lorpenak eta hark dakarren inbertsioak, energia berriztagarrien garapenerako balazta izan daitekeela eta aldi berean klima-aldaketaren kontrako borrokarako atzera pausoa ere.

Adierazitako guztiagatik Ikune Parte-Hartze Plataforma Hiritarra, Sagarrak Elkarte Ekologista eta Anti-Fracking Bizkaia Plataformak hurrengo mozioaren onespena proposatzen diote Udaleko Osoko Bilkurari:

E R A B A K I A

1. Gure ustetan eskisto-gasa erauzketa teknika hau argi eta garbi kaltegarria da, ingurumen eta giza osasunean min itzulezinak eragin ditzakeenez gero, erabili den beste herri batzuetan frogatu den bezala. Gas-erauzketa teknika honen erabileraren oposizio argi eta sendoa adierazten dugu eta "frackingetik aske dagoen Udalerri " izendatzen dugu Etxebarri udalerrria.
2. Gobernu Zentralaren Industria Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu gogoan izan dezatela haustura hidraulikoaren edo frackingaren bitartez gas ez-konbentzionaleko Prospekzio / Erauzketari aurkako erakundeen eta taldeen borondatea.
3. Euskadin frackingaren aurkako HLE, 2013ko abenduaren 23an Eusko Legebiltzarreko mahaiak izapidera onartutakoa, sostengatu.
4. Onartu hitzez hitz dokumentu honen hasierako proposamena eta horri buruz udal-araudi urbanistikoan aldaketa bat sartzea, udal-zerbitzu teknikoek egoki irizten dioten moduan.

Hidrokarburo Sektoreko Legeko 1. artikulua ezartzen du Gobernu Zentralaren aldeko eskumena dela lurzoruko baliabideak ateratzeko baimena ematea. Hala ere, hasierako proposamenaren onespenearekin frackinga erabiltzeko beharrezko azpiegituraren instalazioa lurzoru ez urbanizagarrian mugatzen da, erabateko udal-konpetentzia baita arlo urbanistikoa.

Etxebarri, 2014ko martxoaren 28a